



**Proyde – Proega** 2001. urtean lehentasunezko helburu sozial batekin sortutako Fundazioa da: Garapenerako lankidetzaz.

Fundazioaren Estatutuek dioten bezala, hau da bere **fundazio helburua**:

- *justizian eta solidaritatean, lan boluntarioan, eta garapenean heztea.*
- *herrialde behartsuenen promozioa eta garapena;*
- *garapen, larrialdi eta giza egintzetako proiektuen bitarteko lankidetzaz, mota ezberdinetako jardueren bitartez:*
  - 1) *Garapen sozio ekonomikoa, begiraleen formazioa, gazte eta helduen alfabetatzea, langile prestatuak bidaltzea.*
  - 2) *Helburu horiek lortzeko egiturak ezartzea.*
  - 3) *Justizian eta garapenean heztea, Euskal Autonomia Erkidegoan.*

Gure Fundazioa, **boluntariorik** oinarritua, sozialki bere zereginarekin koherentea den GGKE gisa ikusita dago eta **bere izena** du egiten duen lanagatik, bai garapenerako hezkuntzan bai Garapen Proiektuak aurrera ateratzeko orduan.

**Proyde – Proega** Fundazioa Espainia eta Portugaleko La Salleko GGKEen Sarearen barruan dago eta Proyde Zentralarekin (Madril) koordinazio estuan dihardu.

Euskal Autonomia Erkidegoko **La Salle** ikastetxe guztiek ehundutako **SAREA** osatzen dugu: **6.000**tik gora familiak Proyde - Proega daukate beren GGKE erreferentzi gisa.

## **GURE GIZA BALIABIDEAK**

**Proyde – Proega** boluntariorik oinarritutako GGKE bat da. Beraz, bai Egoitza zentrolean bai tokian tokiko ordezkari zentrolean diharduten ia pertsona guztiak **boluntarioak** dira.

Izan ere, Proiektuen kudeaketarako lanaldi laburrerako kontratatutako pertsona bat dauka, eta 250etik gora boluntario.



## TOKIAN TOKIKO ORDEZKARITZAK

Proyde - Proegak Erkidego Autonomikoko hiri eta herri hauetan dauzka ordezkariak: Andoainen, Beasainen, Bilbon, Donostian, Eibarren, Irunen, Sestaon, Zumarragan eta Zarautzen.

Urtero, Proyde - Proegak 20 bat boluntario mobilizatzen ditu udan, gazte eta helduen artean, Hirugarren Munduan lan egiteko.

Boluntarioez gain, Proyde - Proegak **700 lankide** dauzka, eta gizarte oinarri sendo eta egonkorra, **9.500dik** gora **persona** dauzkana, La Salleko Anaiek Euskal Herrian dauzkaten **13 ikastetxeetan**.

## HAU DA EGITEN DUGUNA

Garapenerako lankidetzaren marko orokorraren barruan, Proyde - Proegaren jardura bi mundutan garatzen da modu paralelo eta osagarrian:

- **Garapenerako eta solidaritaterako hezten dugu: Geure gizartea** sentsibilizatzen jarduten dugu, solidaritatean eta justizian heziz, eta gure zenbait kultur baloreen aldaketa bultzatuz.
- Azken helburua, alde batetik, bidegabekeria, berdintasunik eza eta baztertzea sustatzen dituzten egitura sozio-politiko eta ekonomikoak antzaldatzea da, eta bestetik, egitura horien euskarri diren kultur baloreen aldaketa.
- **Garapen Proiektu eta Programak sustatzen ditugu lurralde pobretuetan**, heziketaren alorrean batik bat.

## 250 PROIEKTUTIK GORA

- Proyde - Proegak **250dik gora Garapen Proiektu** jarri ditu martxan hiru kontinentetan: Afrikan, Amerikan eta Europa Ekialdean. Gehienak heziketaren munduarekin lotuta daude eta behartsuenei laguntzera zuzenduta: haur eta gazteei, emakumeei...
- Hauek dira Proyde - Proegaren proiektu gehien hartzailleak izan diren **10 lurraldeak**: Togo, Benin, Boli Kosta, Eritrea, Burkina Faso, Ginea-Conakry, Guatemala, Peru, Bolivia eta Argentina.
- 2001etik hona Proiektuetan banatutako diru-kopurua **5 milioi eurotik gorakoa da**.

## NORK FINANTZATZEN DU HAU GUZTIA?



Madalena Jauregiberri 2  
20014 DONOSTIA  
CIF. G20722336

✉ proega@lasalle.es  
☎ 943 45 63 00  
☎ 616 539 356



Bere historia labor baina sendoan, Proyde - Proegak Euskal Herriko entitate publiko eta pribatu askoren laguntza eskatu eta lortu du. Emandako laguntzaren arabera, hauexek nabarmenduko genituzke: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eibar, Zarautz, Irun, Hondarribia, Andoain eta Zumarragako udalak.

Bestalde, lankideen gizarte-oinarri sendo eta iraunkorra ere diru-laguntza iturri garrantzizkoa da.

*Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen gutako bakoitzaren jarduerak eragina daukala mundu osoan.*

*Elkarrekin, gizabanakoek, enpresek eta erakundeek politika sozial konprometituak eraman ditzakegu aurrera.*



## PROYDE-PROEGAREN goiburua

*Toki xume askotan  
jende xume askok  
gauza xume asko eginez,  
mundua alda dezake.*

**HELBIDEA:** Madalena Jauregiberri, 2.  
P.K. 851  
20.080 Donostia-San Sebastián  
**TELEFONOA:** 943-456300  
**E-MAIL:** proega@lasalle.es  
**WEBGUNEA:** www.proyde-proega.org

**Bankuko kontua:**

**KUTXABANK: ES29 2095 5010 3410 6186 3279**